



# Ekonomia solidarioa eta politika publikoak. Europa



**reas**  
**euskadi**

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea  
red de economía alternativa y solidaria



Dokumentu hau **reas** Euskadiko “Ekonomia Sozial eta Solidario baterako Tokiko Politika Publikoak” proiektuaren barruan kokatzen da. Zenbait jardueraren bitartez (ikerketa, prestakuntza, herritarrak sentikortzea, hedapena eta erakundeekiko elkarrizketa), Ekonomia Sozial eta Solidarioko printzipioetan eta praktiketan oinarritutako politika publikoak identifikatu nahi dira, bai eta lurraldeen eraldaketaren zerbitzurako tresnak garatu ere, ekitate-, iraunkortasun- eta solidaritate-irizpideetan oinarrituta.

Finantzatzen dute:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Venezuela plaza 1, 2 Ezk.-Ezk  
48001 Bilbao  
reaseuskadi@reaseuskadi.net  
[www.economiasolidaria.org/reaseuskadi](http://www.economiasolidaria.org/reaseuskadi)



Aitorpena-Ez komertziala-3.0 lizentzia beraren pean partekatzea Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago.

Askatasun osoz kopia, banatu eta publikoki jakinaraz daitezke, baldin eta egiletza aitortzen bada eta helburu komertziala- rako erabiltzen ez ba da. Hori aldatu, eraldatu edo eratorritako obrarik sortzen bada, lizentzia honen pean soilik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa. Lizentzia osorik:  
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

# [aurkibidea]

Sarrera	5
Udalerrri sareak eta konpromiso instituzionalak	5
Plan estrategikoak	6
Pizgarriak eta neurriak	7
Erosketa Publiko Sozialki Arduratsua	7
Tokiko garapen ekonomiko alternatiboa	8
Elikadura burujabetza	9
Denboraren politikak	10
Etxebizitza kolaboratiboak	11
Hirigintza iraunkorra	11





## .....• **Sarrera**

Europar, Ekonomia Solidarioaren kontzeptuaren sorrerak eta bilakaerak lotura estua izan du ekonomia sozialak eta haren antolaketa eta enpresa egitura klasikoek azken mendeetan izandako garapenarekin. Kooperatiba enpresek, mutualitateek eta elkarteek Europar izandako bilakaerak instituzionalizazio prozesua ahalbidetu du. Ekonomia sozialaren molde instituzionalizatu horiei “ekonomia sozial berria” izena jarri zioten zenbait egilek –Jean-Louis Laville frantses soziologoak, besteak beste–, XX. mendeko 70eko hamarkadan krisi ekonomikoari eta nazioarteko ekonomia arloko aldaketei aurre egiteko Europar sortu ziren antolakunde eta enpresak izendatzeko<sup>1</sup>.

Europari dagokionez, gizarte ekintzailtzen alderdi kolektiboaren, izaera demokratikoaren eta ekonomia ulertzeko eta egiteko bestelako modu batzuen ikuspegitik ulertzen da Ekonomia Sozial eta Solidarioa. Haren sorrera, ekonomia sozialaren bultzada berriak sustatua, globalizazioaren erronkei gizarte zibilak emandako erantzun gisa hartzen da; langabeziak eta bazterketak sorturiko arazo ekonomiko eta sozialei irtenbide berriak emateko bilaketa gisa; sektore publikoak edo pribatuak ase gabeko gizarte-eskakizunen erantzun gisa; eta Europar Ongizate Estatua birdefinitzen ari zen testuinguru batean zerbitzu jakin batzuen hornidura ulertzeko modu berri gisa.

Hala, Lavilleren aburuz, Europar, herritarren konpromisoetatik abiatuta ekonomia demokratizatzen laguntzeko bideratutako jardueren multzo gisa ulertu beharra dago Ekonomia Solidarioa, sektore gisa baino gehiago, zentzu hertsian, jakinik jarduera horietako batzuek – bidezko merkataritzak, esate baterako– nazioarteko dimentsioa dutela.

Definizio horri jarraituz, zenbait proiektu identifikatu ditugu Europar, beren proposamenen izaera integralagatik bereziki nabarmentzekoak. Ildo horretatik, dokumentu hau ez da mapaketa ariketa bat; gehiago da ekonomia solidarioa edo tokiko garapen alternatiboa sustatzeko ekimen publiko inspiratzaileen bilduma bat, hurbilagoko errealitateetara heda litekeena. Ekimen horietako batzuk administrazioaren inplikazioaren eredu dira; beste batzuk, berriz, beren ikuspegi estrategikoagatik eta hainbat arlotan egiten ari diren lanagatik aukeratu dira; eta, azkenik, badira helmen handiko partaidetza prozesuetan oinarritzen direlako nabarmendutako esperientzia esanguratsuak.

22 ekimen bildu ditugu, guztira, Interneten, bigarren mailako iturrien analisisian eta Ekonomia Sozial eta Solidarioari eta tokiko garapenean duen egitekoari buruzko mintegi espezifikoetan oinarrituta.

## .....• **Udalerrri sareak eta konpromiso instituzionalak**

- a) **Trantsizioko hirien sarea** Kinsalen sortua, Irlandako lehen trantsizioko hirian, Rob Hopkinsen eskutik. Han ekintza-plan bat ezarri zen beharrezko energetikorako, eta hiri batek erregai fosilen mende egoteari uzteko estrategia programatu bat egiteko lehenetako ahalegintzat

---

1 MENDIGUREN, JC.; GURUDI, L. (2014) *“La Dimensión económica del Desarrollo Humano Local: La economía social y solidaria”*. HEGOA Institutua (UPV-EHU).

hartzen da. Erresuman Batuan, estrategia horiek diseinatzean eta abian jartzean herritarrei parte hartzeko aukera emateko sustatu zuten trantsizioko hirien sarea, baita trantsizioko ekimen bat aplikatu nahi dutenei euskarria emateko ere (prestakuntza, tresnak, teknikak eta abar.). [<https://transitionnetwork.org/>]

- b) **RTES -Réseau des collectivités Territoriales pour une Economie Solidaire-** (Frantzia): ESSren aldeko lurralde-sareen esperientziarik sendoena Frantzian dago. Hala, RTESn 125 erkidego, eskualde, departamendu, interkomuna eta komuna biltzen dira, eta horiek, ESS gauzatzeko gutunarekiko konpromisoarekin, hainbat helburu dituen truke- eta koordinazio-gune nazionala eratzen dute: lurralde-ekimenak sustatzea; administrazio publikoek alor honetan bultzatutako esperientziak aitzat hartzea; praktika onak hedatzen laguntzea eta abiatutako politikak hobetzea. Azken finean, aktore guztiekin batera beste garapen-eredu bat sortzeko espazio bat da; eredu horrek, merkatu-logikatik ihes eginez, gai izan behar du erronka ekonomiko, sozial eta ekologikoei erantzuna emateko. [<http://rtes.fr/>]
- c) **Ekonomia Sozialeko Eskualde Plataforma (Bulgaria):** Bulgariako eskualderik pobreenetako batean, enpresa sozialak sortu dituzte zenbait udalerrik eta gobernuz kanpoko erakundek, eta ekonomia sozialeko eskualde plataforma batean elkartu dira berriki. Herrialde hartako era horretako lehen plataforma da, eta haren xedea da enpresa sozialen informazio ahalmena hobetzea, laguntza sistema sendotzea eta jardunbide egokiak eta berrikuntza sozialak hedatzea. Hiru udalerrri (Veliko Tarnovo, Razgrad eta Lyaskovets) eta eskualde hartan lanean diharduten gobernuz kanpoko 8 erakunde biltzen ditu plataformak, eta gutun etiko batean adierazi dute plataformako kideek gizarteratzeari begira ekonomia soziala sustatzeko harturiko konpromisoa. Lehen plataforma iraunkorra da, eta bereziki nabarmentzen du Bulgariako ekonomia sozialean diharduten eragileek (gizarte zibila, GKE, udalerriak) dinamika sektorialak bultzatzeko duten borondatea. [<http://bit.ly/2kDGtsA>]
- d) **Frantses agintarien ESSren aldeko konpromiso kolektiboa:** 2015eko ekainean, RTESk deialdi nazional bat egin zuen Frantziako lurralde egitura guztietako tokiko ordezkari hautetsiek beren gain har zezaten ESSrako tokiko politiken aldeko konpromisoa. Uztailen egin zuten konpromiso hori biltzen duen adierazpenaren aurkezpen ofiziala. Adierazpen horretan, 2013az geroztik Frantzian ESSren garapenean egindako aurrerapenak azpimarratu zituzten (2014an aldarrikatutako ESSren legea; gero eta gobernu gehiagok txertatzea ESS beren politika publikoetan; ESSrako tokiko gobernuen 2013ko eta 2014ko topaketa nazionalak; European enpresa sozialek egindako aurrerapenak...), baina, era berean, aldarrikatu zuten adierazpen formal soilak egitetik ekonomia solidarioko jarduera errealak sustatzera jauzi egin beharra dagoela. Zehazki, honako konpromiso hauek hartu zituzten ordezkari hautetsiek: ESS garatzea, tokiko eragileekin lankidetzan eraikitako ESSko lurralde estrategiak inplementatuz; Erosketa Publiko Sozialki Arduratsua garatzea; ESSren sektoreak orotariko politika publikoak eraikitzen esku har dezan ahalbidetzea; gizarte-berrikuntza sustatzea, eta ESSren aukerak esperimentatzeko, berritzeko eta ikertzeko ausardia izatea. [<http://bit.ly/2kMXLiZ>]

## .....• **Plan estrategikoak**

- a) **Ekonomia Sozialerako Ekintza-Plana, Bulgaria:** Bulgariako Errepublikako Ministroen Kontseiluak Ekonomia Sozialerako Ekintza Plan (2014-2015) bat ebatzi du, eta Lan eta

Gizarte Politika Ministerioaren esku utzi du hura abiarazteko ardura. Bost lehentasun ezarri dituzte: 1. Alderdi interesdunak Ekonomia Sozialaren oinarriez; eta funtzionamenduaz sentikortzea; 2. Ekonomia Soziala eta gizarte-enpresak babesteko egiturak sortzea; 3. Ekonomia Sozialari buruzko informazioa ematea; 4. Ekonomia Sozialari buruzko hezkuntza, prestakuntza eta ikerkuntza lagunduko duten baldintzak ezartzea; 5. Ekonomia Soziala gauzatzea bultzatzeko ingurune egoki bat ezartzea. Bulgarian, udalerriek autonomia dute aurrekontuen arloan, eta, hala, onura sozialeko jardura ekonomikoen garapena sustatzeko modua dute. Askotan, udalerrri baten eta GKE baten artean sortutako irabazi asmorik gabeko antolakunde paraestatalak izaten dira enpresa sozialak. Udal instalazioak doan erabiltzea, kontratazio publikoa, oro har, eta beren produktu eta zerbitzuak merkaturatzeko laguntzak dira tokiko komunitateek enpresa sozialei laguntzeko baliatu ohi dituzten mekanismoak.  
[<http://bit.ly/2cvAQH6>] [<http://bit.ly/2dj6mGV>]

## .....• **Esserako pizgarriak, babes eta finantzaketa neurriak**

a) **Babes eta finantzaketa neurriak (Frantzia):** 2014ko uztailaren 31n onartutako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Legean aurreikusitako neurriak dira.

—• Gizarte Berrikuntzako Funtsa (FISO, frantseseko sigletatik). Eskualdeek eta Bpifrancek kudeatzen dute FISO; 40 milioi euroko diru hornidura du, guztira, enpresa sozialak eta ETE tradizionalen berrikuntza sozialeko proiektuak finantzatzeko aurrerakin itzulgarri modura banatzeko, 30.000 €-ko gutxienerako inbertsioen bidez.

—• Enpresa sozialentzako maileguak: Bpifrancek 50 milioi euro bideratzen ditu enpresa sozialei maileguak banatzera, gehienez ere 50.000 €-koak (100.000 €-koak, baldin eta eskualdeak ere parte hartzen badu).

—• Funtsen funtsa: Bpifrance "*Impact coopératif*" funtsen barruan dagoeneko indarrean dagoen proiektu bat da, zeinaren xedea baita kapital inbertsioak mobilizatzea, kooperatibak eta haien finkatze eta eskala prozesuak egituratzeko eta sendotzeko. Ministerioak konpromiso irmoa hartu du lehen txandan 500 milioi euro inbertitzeko.  
[<http://bit.ly/1ugHPCS>]

b) **Zerga pizgarriak**

—• Frantzia: Soldaten gaineko zerga murriztea sozietateen zergaren mende ez dauden elkarteei.

—• Erresuma Batua: %30eko zerga arintzea aurreikusten da enpresa sozial eta kooperatiboentzat (interes komunitarioko sozietateak eta onura komunitarioko sozietateak).

## .....• **Erosketa publiko arduratsua**

a) **Erosketa Soziala** tresna sorta, Ipar Irlanda: Kit honen xedea da kontratatzeko ardura duten erakundeei laguntza ematea, beren kontratuen bitartez gizartearentzat eta tokiko ekonomiarentzat onurak sor ditzaten. Strategic Investment Board (SIB) agentziak garatu

du, kontratu publikoetan gizarteari buruzko alderdiak txertatzeko gida praktiko gisa. SIB agentzia gobernuak sortu zuen, Ipar Irlandako sektore publikoari azpiegitura-programa handiak eskaintzen laguntzeko. Agentzia horrek 20 mila milioi euroko inbertsio-estrategia garatu eta taxutu du Ipar Irlandarako. [<http://www.buysocialni.org/>]

## .....• Tokiko garapen ekonomiko alternatiboa

- a) **ESSren lankidetzak ekonomikoko lurralde poloak –LELP– (Frantzia):** Lurralde jakin bateko eragileek osatuta daude (ekonomia sozial eta solidarioko ekimenak, enpresak eta sareak, mikroenprekin, ETE-ekin, tokiko agintariekin, ikerketa zentro eta prestakuntza erakundeekin batera), eta haien xedea da tokiko garapen iraunkorrerako proiektu ekonomiko berritzaileen mutualizazio eta lankidetzak estrategia komun eta iraunkorra garatzea. Frantziako gobernuaren arabera, garrantzi handiko egitekoa izan dezakete LELPei lurraldeen garapen ekonomiko berritzaile eta integratzailean. Hain zuzen ere, horretaz jabeturik, 2013an, hainbat ministerioren arteko proiektu deialdi bat egin zen, lurralde nazional guztian era horretako poloei eusteko eta haien garapena errazteko. Zehazki, 3 milioi euroko diru hornidura izan zuen deialdi hark, eta honako erakunde hauek finantzatu zuten: Ekonomia eta Finantza Ministerioa, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta Kontsumoaren arduraduna; Lurraldeen Berdintasun eta Etxebizitza Ministerioa; Hiriko Ministerioa; Suspertze Produktiboko Ministerioa, eta Gordailu eta Kontsignatze Kutxa. Proiektu deialdi hura bereziki zegokien ESSko enpresen eta enplegu arlo bereko beste enpresa batzuen lankidetzan oinarritzen diren eta krisian dauden lurraldeei (hiriko politikan identifikatutako lehentasunezko auzoak, arlo desindustrializatuak edo gainbehera dauden landa eremuak) eusten dieten ESSko ELPei, lurralde eremu horien berrikuntza sozioekonomikoa sustatzeari, tokiko sarearen eraldaketa sozial eta ekologikoa laguntzeari eta lanpostuak sortzeari begira. [<http://bit.ly/2lcFbmX>]
- b) **Tokiko ekonomiaren trantsizio ekologikoa eta partaidetza bidezkoa. Loos-en-Gohelle (Frantzia):** Tradizioz meatzaria izandako herria da, Frantziako iparraldean kokatua (7.000 biztanle). 90eko hamarkadan meategiak itxi zituztelarik, kolapso ekonomikoa, langabezia, prekaritatea eta ingurumen arrasto sakonak izan dira, harrezkero, herriaren egoeraren adierazle nagusiak. Gaur egun, ordea, ekonomiaren trantsizio ekologikoko laborategi aitzindari modura dihardu, partaidetza-demokrazian, zeharkakotasunean, epe luzera begirako ikuspegian (globala eta lokala, aldi berean), kultura arloan eta memoriaren eta nortasunaren garrantzian oinarriturik. Ekonomiari dagokionez, tokiko sektoreen birmoldatze ekologikoaren aldeko apustua egin dute: hain zuzen ere, obra berrietan bioeraikuntza sustatzera, mugikortasun iraunkorrera, energia berriztagarrietara (energia elektrikoan askitasuna lortu arte) eta ekonomia sozial eta solidarioa bideratu dira ahalegin guztiak. Loos-en-Gohellen, Garapen Iraunkorrerako Baliabideen Zentroa jarri dute abian (Estatua, enpresak eta ingurumenarekin loturiko elkarteak biltzen ditu), baita enpresa mintegi bat ere, biak ere aitzindariak, Frantzian, bioeraikuntzan, energia berriztagarrietan eta hirigintza ekologikoan. Gainera, I+G+B eta prestakuntzako eguzki plataforma bat du, eta materialak birziklatzeko lehiakortasun polo bat. Bestalde, Udalak zenbait ekimen espezifiko jarri ditu abian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean sakontzeko: emakumeen talde antolaketa sendotzea, emakumeentzako osasun tailerrak eta emakume etorkinentzako hizkuntza ikastaroak, adibidez. Trantsizio horren ikurretako bat meatzaritza identitatea eta haren aintzatespen kultural, humano eta soziala izan da. Ekosistema sozial eta ekonomiko berri hori, nolatan ere, ezinezkoa izango litzateke herritarren partaidetzarik



gabe. Udalaren ekimenez, urtean 40 bilkura egin dira inguru hartako biztanle, elkarte eta gizarte-eragileak ekimenetan, erabakietan nahiz eguneroko kudeaketan inplikatzeko. Asmo horren emaitzetako bat “%50-%50 konpromisoa” deritzona da; ekimen horren bidez, udal kapital ekonomiko eta tekniko eskaintzen zaie bizilagunen ekimenei, baldin eta bizilagunek konpromisoa hartzen badute ekimen horiek mantentzeko eta zaintzeko (adibidez, Guraso Elkartek eta ikasleek kudeatutako eskola-baratze bat finantzatzen du). Bestalde, herria “Ongizatearen Partaidetza Indizea” prestatzen ari da, herritarren partaidetzan oinarriturik, zeinaren bitartez bizilagunek neurtu ahal izango baitute beren gizarte eta ekologia aberastasuna. [<http://bit.ly/2kYUJrO>]

### c) Ekonomia desmonetizatzea

—● Bristol Pound, Bristol Udala (Ingalaterra): Bristolen – milioi bat biztanletik gorako hiri–2012tik martxan dagoen moneta soziala da, eta Ingalaterra hegoaldeko hiri honetako tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko xedearekin sortu zen. Eskualdeko moneta denez, hiriarren 80 kilometroko inguruan erabil daiteke. Kreditu kooperatiba baten laguntzaz garatu da; erakunde horrek libera esterlinek dituzten segurtasunparametro berberak erabiltzen ditu Bristol Poundeko kontuak kudeatzeko. Monetaren arrakastan funtsezkoa izan da Udalaren konpromisoa eta parte-hartzea, zergak moneta hori erabiliz ordaintzea onartzen baitu, eta udaleko langileei euren soldata Bristoleko liberatan jasotzeko aukera ematen baitie. [<http://bristolpound.org/>]

—● SOL-Violette. Tolosako Udala (Frantzia): Sol-Violette Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko herri-dirua abian jartzeko xedez sorturiko ekimen bat da. Ekimena aurrera ateratzeko, Sol-Violette Akordioaren Tokiko Batzordea elkarte osatu zuten bost gizarte-eragilek (kontsumitzaileak, merkataria, finantza-eragileak, komunitateak eta fundatzaileak). 2011n jarri zen abian herri-diruaren proiektua, Udalaren laguntzaz, elkarren profil sozioekonomiko desberdineko hiru auzotan (Grand Mirail, Ranguel eta erdialdea). [<http://www.sol-violette.fr/>]

—● Toreke, Genteko Udala (Belgika). 2011tik Rabot-Blaisantvesten (Gent hiriko auzoa) martxan dagoen moneta komunitarioa, Udaletxeak sustatua. Borondatezko hainbat komunitate-proiektutan parte hartuz lor daitezke Torekeak (500 jardueratik gora daude: kaleak garbitzea, ekitaldi berezien ondoren kiroldegia garbitzea, balkoietan loreak jartzea eta abar). Torekeekin “bio” produktuak eta sasoikoak eros daitezke, baita kontsumo gutxiko bonbillak, garraiobide publikoko txartelak eta auzoko kultura-jardueretarako sarrerak ere. Proiektua finantzatzeko, aurrez zerbitzu horiek ordaintzeko erabiltzen zuten aurrekontua erabiltzen dute; izan ere, orain herritarrek ematen dituzte. [<http://www.torekes.be/>]

d) Frantziako Nekazaritza-Ministerioaren zirkuitu laburretarako Ekintza-Plana: 2009an, Frantziako Nekazaritza Ministerioak ekintza-plan bat bultzatu zuen zirkuitu laburretan merkaturatze-ereduei lotutako produkzioak sustatzeko eta garatzeko. Plana ardatz hauen inguruan diseinatu dute: a) administrazioak zirkuitu laburren funtzionamenduari eta eskakizunei buruz dituen ezagutzak hobetzea; b) nekazariak zirkuitu laburretan sartzea babestea; eta c) esku hartzen duten aktoreen eskumenak hobetzea. [<http://bit.ly/2cXO2ly>]

## .....• Elikadura burujabetza

- a) **Bristoleko nekazaritzako elikagaien plana. (Inglatera):** Bristol hiria auditoretza batean ateratako ondorioetan oinarritu da nekazaritzako elikagaien estrategia garatzeko. Auditoretza hartan antzeman zutenez, lur emankor mugakide asko galduta zeuden eta elikagai freskoak saltzen zituen hurbileko merkatu-ehuna ahul zegoen. Hiriko politikak 2015 eta 2018 arteko iraupeneko plan batean antolatu dira, eta kalitateko elikagaiak (bertakoentzat eskuragarriak eta ingurumenaren aldetik iraunkorrak) egin eta erosteko prestakuntza eta aholkularitza ematera daude bideratuta. [<http://bit.ly/1xBgS1H>] [<http://bit.ly/1GkrbcM>]
- b) **Elikadura sistema iraunkorra. Brusela (Belgika):** Ingurumen Arloak lehentasun estrategikotzat hartu zuen elikadura sistema iraunkorrak garatzea. Lehenik, eskualdeko gobernuak sentsibilizazio kanpaina bat jarri zuen abian, publiko orokorrari azaltzeko elikagai iraunkorren garrantzia eta eragin positiboak. Aldi berean, elikagai iraunkorren kontsumoa sustatu zuen jantoki eta kantina publikoetan. 2009an, 40 jantokitan (egunean 60.000 otordu) ezarri zen Kantina Iraunkorrak proiektua, eta, 2014rako, Belgikako hiriburuko 94 jantoki biltzen zituen proiektuak (egunean 80.000 otordu). Bestalde, kanpaina haren barruan, etxe eta jatetxeetako kontsumo ereduaren aldaketa ere sustatu zen: lehenik, bertako fruta eta barazki gehiago kontsumitzea –ekologikoak, ahal izanez gero–, eta elikadura-hondakinak eta hondakinak murriztea. Eskualdeko gobernuaren lorpen nagusietako bat izan da iraunkortasun irizpide horiek nekazaritza-elikaduraren sektorearekin loturiko erosketak publikoetan txertatzea. Azkenik, hiri-baratze komunitarioak sortzea proposatu zen elikadura iraunkorren aldeko apustu berde modura; baratze horien helburua elikaduratik harago doa, ordea, gunen ezin egokiagoak baitira, elikagaien ekoizpen propioa eta ingurumenari buruzko sentiberatzea sustatzeko ez ezik, auzokideen artean lotura sozialak ere eratzeko. [<http://bit.ly/2m3m1ye>].

## .....• Denboraren politikak

Mugimendu feministaren bultzadari esker, denboraren politikak sortu ziren XX. mendeko 80ko hamarkadan Europa iparraldeko mugimendu feministak abiarazitako eztabaiden oinardeko dira politika horiek. Eztabaidok mahai gainera ekarri zuten bizitzaren ugalketaren denborak aintzat hartzeko premia, baita zein bidegabekeria sakona zen emakumeentzat zaintza-denboraren ikusezintasun etengabea, eta nola haien ongizatearen eragiten zuen, eta haien bizitzak prekario bihurtzen zituen.

- a) **Bremen 2030, denboraren jabe den hiri bat (Alemania):** Bremen duela 24 urtetik existitzen da "Hiriko denborak proiektua", eta 1997an hezurramitu zen, Alemaniako lehenengo "denboraren bulegoa" irekita. Hiru helburu multzo handi ezarri ziren denboraren politikan esku hartzeko. Adierazpide hauen bitartez laburbildu ziren:

—• Hirigintza. "espazioaren trinkotasunak eta denboraren aniztasunak ezaugarritu behar dituzte hiriak, horrek bihurtzen baititu errealitate bizi eta erakargarri".

—• Laneko ordutegiak, gizartearen denborak eta hirien denborazko osaerak eguneroko bizimodura moldatu behar dira, kasuan, kasuan.

—• Zerbitzu publiko eta pribatuen modernizazioa. “Zerbitzu publiko eta pribatuek erabiltzaileen denborazko betebeharrak eta premiak hartu behar dituzte erreferentzia puntutzat, eta bizitza-kalitatea sortzen eta sustatzen lagundu behar dute”.  
[<http://bit.ly/2dfQmWK>]

## .....• Etxebizitza kolaboratiboak

**Suedia:** Stockholmen moduko hirietan, elkarlaneko etxebizitzek osatutako eraikin asko aurki ditzakegu. Administrazioak ordaindu du horien eraikuntza, eta jabetza publikokoak dira. Instituzioen inplikazioa etxebizitzaren bulegoak bideratzen du, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta kooperatibekin kontratuak finkatzen ditu. Etxebizitza bakoitzak bere onarpen-irizpideak ezartzen ditu. Horrela, besteak beste, 55 urteetik gorakoei, LGTB komunitateari eta emakumeei zuzendutako etxebizitzak aurki ditzakegu.

**Danimarka:** Herrialde honetan tradizio luzea du lankidetzak, eta eragile publiko nahiz pribatuen ekosistema askotariko eta konplexua osatu dute etxebizitzaren sektorean, politika publiko osagarrien bidez; horri esker, askotariko izate, autogestio, tamaina, forma eta kokaleku aukerak daude sektore horretan. Eredu mistoa da: sektore publikoak presentzia nabarmena du, elkarrekin sektorearekin lankidetzan.

**Alemania:** Alemanian, indar handia hartu dute etxebizitza kolaboratiboek azken 20 urteetan. [<http://www.wohnprojekte.de>] helbidean ikus daitekeenez, 600 bat proiektu sortu dira, eta, ealkuluen arabera, 2011n, 25.000 lagun inguru bizi ziren Alemanian 550 etxe kolaboratibotan. Nolanahi ere, era honetako proiektuek beste herrialde batzuetan ez bezalako jatorria izan dute Alemanian; izan ere, etxebizitza edo etxe berean bizi ziren pertsonen artean antolatuta zituzten lehen ekimenak. Kapitalismoarekiko eta familian oinarrituriko bizimoduekiko emantzipazio politikoa aldarrikatzen zuten, eta komuna edo komunitate ekonomiko modura ziharduten, bereziki Mendebaldeko Alemanian, batasunaren aurreko garaian. 80ko hamarkadan, komunitate ekologiko eta familiar (ekoherrixka) ugari sortu ziren; eta, 90eko hamarkadan, adineko pertsonentzako bestelako bizimoduak bilatzea xede zuten proiektuak nagusitu ziren. XXI. mendean, berriz, belaunaldi arteko proiektuak eta emakumeentzako proiektuak ugaritzen ari dira. 2000. urtean, lehen *Begienhofa* ireki zuten, Bremenen (Alemania iparraldean), zeina izan baitzen emakume autoantolatuen beste hainbat talderen aitzindari. Eredu horren bereizgarri nagusia da irabazi asmorik gabeko egitura pribatu ez-espekulatiboa izatea.

Iturria: MOGOLLÓN, I; FERNÁNDEZ, A. *Arquitecturas del Cuidado. Viviendas colaborativas para personas mayores. Un acercamiento al contexto vasco y las realidades europeas*. Emakunde 2016. [<http://bit.ly/2alE7AI>]

## .....• Hirigintza iraunkorra

a) Partaidetza-prozesua, hirigintza iraunkorreko plangintzan. Friburgo (Alemania): Friburgo Baden-Württemberg eskualdean dago; 220.000 biztanle ditu, eta munduko hiri berde ospetsuena da. “Vauban ekoauzoa” da partaidetza-prozesuetan oinarrituriko hirigintza horren ikurra. Hain zuzen ere, herri-partaidetzaren bidez bideratu zuten auzoaren

birgaikuntza, eta antzina eremu militarra izandakoa irizpide ekologiko eta bizitza onekoetan oinarrituriko egoitza-eremu bihurtu zuten prozesu hari esker. Vaubanen, etxe guztiak dira energia kontsumo apalekoak, energia balantze positiboa dute, eta hiriari itzultzen diote elektrizitatea, energia berriztagarriei eta energia eragingarritasunari esker. Auzo horretan, gizarte-kohesioa lehenetsi dute; horretarako, 40 etxebizitza-kooperatibatik gora sortu dira, biztanleek beraiek kudeatutako zerbitzu komunez hornituta. Partaidetza-ekimen asko daude, elikagai kontsumoen taldeak nahiz emakume taldeak, eta auzoko sareetan txertaturik daude errenta apala duten pertsonak ere. Bestalde, pertsonako eguzki energia gehien sortzen duen munduko hiria izateaz gainera, tren elektrikoan oinarrituriko garraio publikoko sistema bat du. Bizikletaren erabilera, intermodalitatea eta ibilgailu pribatuen erabilera ahalik eta txikiena sustatzen dute. Hirigintza-plangintza iraunkorra gauzatzeko prozesua XX. mendeko 70eko hamarkadan hasi zen; hain zuzen ere, orduan, herritarrak energia nuklearreko planta bat eraikitzekeo planifikazioaren kontra agertu ziren. Eta hauek izan dira prozesu horren gako nagusiak:

- Hiri-bizimodu iraunkorreko ingurumen eredu bat sortzeari begira orain 30 urte garatutako plangintza-estrategia integratua.
- Hiriko erabakiak hartzeko herritarren konpromisoa.
- Joan-etorriak garraio publikoan, bizikletaz edo oinez egin daitezkeen sustatuz, "distantzia laburrekiko hiria" sortzeko garraio publikoko sistema integratu bat izatearen garrantzia aitortzea. [<http://bit.ly/2m07M0p>]